

## AURKEZPENA

### SAIOAREN NONDIK NORAKOA

#### Helburua:

Lehen Hezkuntzako 4. mailako Matematikarako kompetentziaren Ebaluazio Diagnostikoari buruzko informazioa partekatzea: ISEI-IVEIren Marko Teorikoa eta itemen adibideak, besteak beste.

#### Saioaren antolaketa:

- o **11:00-12:00.** Ordu beteko online saioa (grabatuta geratuko da). Saioan zehar, zalantzak eta galderak bidali ahal dizkiguzue. Gure lankideek jasoko dituzte.
- o **12:00-12:30.** Ordu erdiko deskonexioa. Ordu erdi honetan egindako galderen eta zalantzen prestaketa egingo da ISEI-IVEIn.
- o **12:30-13:00.** Egindako galderak eta zalantzak argituko dira online (grabatuta geratuko da).

## ZER EBALUATZEN DU ISEI-IVEIK?

### **ED25:**

Etapa Erdian (LH4 eta DBH2) Matematikarako kompetentzia: testuinguruan jarritako problemen bidez.

Egoerak diseinatzeko erabilitako ISEI-IVEIren Marko Teorikoa eskuragarri dago honako esteka honen bidez:

<https://isei-ivei.euskadi.eus/eu/marcos-nuevos>

### **Saioaren lehen zatiaren antolaketa:**

- Aurkezpena
- Marko teorikoaren azalpena
- Itemen funtsezko ezaugarriak
- Adibideak


## ADIBIDEAK

### ATLETISMO-KLUBA

Atletismo-klubean badakite atletismo egitea oso jarduera onuragarria dela. Gainera, lagunak egiten laguntzen du.



01 Honako hau atletismo klubeko eraikinaren planoak da.




Zein gelak neurtzen du 10 m bider 8 m?

- A. Sarrera
- B. Bulegoak
- C. Aldagelak
- D. Gimnasioa

<b>ITEMAREN DESKRIPZIOA</b>	
<b>Dimentsioa:</b>	4. Komunikazioa eta irudikapena
<b>Kompetentzia espezifikoa:</b>	KONPETENTZIA ESPEZIFIKO 6
<b>Ebaluazio irizpidea:</b>	<b>LH4_13</b> Espazio-irudikapenak interpretatzea eta egitea (mapak, planoak, ibilbideen krokisak eta maketak), oinarrizko nozio geometrikoak erabilia (posizioa, mugimendua eta simetria), hurbileko espazio fisikoari buruzko informazioak komunikatzeko.
<b>Lorpen adierazlea:</b>	4.13.3. Espazio eta eraikuntza ezagunen krokis, plano eta maketa errazak identifikatzen, erlazionatzen eta deskribatzen ditu.
<b>Errendimendu maila:</b>	4.13.3.2. Leku eta eraikuntza ezagunen krokis, plano eta maketa ez hain errazen elementuak (eskala sinbolikoekin) irakurtzen, identifikatzen eta erlazionatzen ditu.
<b>Erantzun zuzena:</b>	B / Bulegoak

02 Klubaren sarrerako zoruan baldosaz egindako mosaiko bat dago.

Honako diseinu hau du:



**Zenbat baldosa behar dira horretarako?**


- A. 10 baldosa
- B. 11 baldosa
- C. 12 baldosa
- D. 13 baldosa

<b>ITEMAREN DESKRIPZIOA</b>	
<b>Dimentsioa:</b>	<i>1. Problemem ebazpena</i>
<b>Kompetentzia espezifikoa:</b>	<b>KONPETENTZIA ESPEZIFIKO 1</b>
<b>Ebaluazio irizpidea:</b>	<i>LH4_1 Eguneroko bizitzaren problema errazak eta egoera problematiko irekiak ebaztea, zenbaki arruntekin eta hamartarrekin oinarrizko eragiketak aplikatuta, hainbat estrategia eta prozedura erabilia, kalkulagailua barne.</i>
<b>Lorpen adierazlea:</b>	<i>1.2.6. Pertzepzio eta arrazoibide espazialeko joko, erronka eta problema errazak ebazten ditu (ardatz batekiko simetria, erreferentzia bisuala...).</i>
<b>Errendimendu maila:</b>	<i>1.2.6.1. Pertzepzio eta arrazoibide espazialeko joko oso errazak ebazten ditu (ardatz batekiko simetriak, erreferentzia bisuala ...).</i>
<b>Erantzun zuzena:</b>	<i>C / 12 baldosa</i>

03

Klubean zenbait gune daude kirol jarduerak egiteko.

Honako formak dituzte:



**Zein gunek dute azalera bera?**

- A. 1 eta 2
- B. 2 eta 3
- C. 2 eta 5
- D. 3 eta 5



<b>ITEMAREN DESKRIPZIOA</b>	
<b>Dimentsioa:</b>	3. Konexioak
<b>Kompetentzia espezifikoa:</b>	KONPETENTZIA ESPEZIFIKO 5
<b>Ebaluazio irizpidea:</b>	<b>LH4_9</b> Irudi eta gorputz geometrikoen ezagutza gure inguruko espazio fisikoaren formekin lotzea problemak ebazteko eta eguneroko bizitzako egoerak ulertzeko.
<b>Lorpen adierazlea:</b>	3.9.2. Oinarrizko irudi lauen (triangeluak, karratuak...) konposizioz eta deskonposizioz osatutako beste irudi batzuk identifikatzen, deskribatzen eta erreproduzitzen ditu.
<b>Errendimendu maila:</b>	3.9.2.2. Irudi lauen konposizioa eta deskonposizioa erabiltzen ditu beste irudi batzuk osatzeko eta problemak ebazteko (mosaiko txikiak)..
<b>Erantzun zuzena:</b>	C / 2 eta 5

04

Klubeko zuzendariak honako taula hau egin du neskak eta mutilak adinaren arabera banatzeko:

	7 urte	8 urte	9 urte	10 urte	11 urte	12 urte
Mutilak	23	23	23	20	15	13
Neskak	25	23	21	24	17	17

Zenbat neska gehiago daude atletismo-klubean mutilak baino?

- A. 7
- B. 8
- C. 9
- D. 10

<b>ITEMAREN DESKRIPZIOA</b>	
<b>Dimentsioa:</b>	<i>1. Problemen ebazpena</i>
<b>Kompetentzia espezifikoa:</b>	<b>KONPETENTZIA ESPEZIFIKO 2</b>
<b>Ebaluazio irizpidea:</b>	<i>LH4_2 Eguneroko bizitzaren problema errazak eta egoera problematiko irekiak ebaztea, zenbaki arruntekin eta hamartarrekin oinarritzko eragiketak aplikatuta, hainbat estrategia eta prozedura erabilia, kalkulagailua barne.</i>
<b>Lorpen adierazlea:</b>	<i>1.2.3. Problemak ebazten ditu sarrera bikoitzeko taulen eta grafikoen bidez aurkeztutako datuen interpretaziotik abiatuta.</i>
<b>Errendimendu maila:</b>	<i>1.2.3.2. Sarrera bikoitzeko taula eta grafikotan aurkeztutako datuen interpretaziotik abiatuta problemak ebazten ditu.</i>
<b>Erantzun zuzena:</b>	<i>D / 10</i>

05

Klubeko 10 urte dituzten 24 neskei inkesta bat egin zaie zein atletismo-modalitate gustatzen zaien gehien jakiteko. Erantzunak honako hauek izan dira:



- Erdiek altuera-jauzia aukeratu dute.
- 7k luzera-jauzia aukeratu dute.
- Gainerakoek oztopo-lasterketa aukeratu dute.

**Zenbat 10 urteko neskek aukeratu dute oztopo-lasterketa?**

neska

<b>ITEMAREN DESKRIPZIOA</b>	
<b>Dimentsioa:</b>	<i>1. Problemen ebazpena</i>
<b>Kompetentzia espezifikoa:</b>	<b>KONPETENTZIA ESPEZIFIKO 2</b>
<b>Ebaluazio irizpidea:</b>	<i>LH4_2 Eguneroko bizitzaren problema errazak eta egoera problematiko irekiak ebaztea, zenbaki arruntekin eta hamartarrekin oinarritzko eragiketak aplikatuta, hainbat estrategia eta prozedura erabilia, kalkulagailua barne.</i>
<b>Lorpen adierazlea:</b>	<i>1.2.1. Eguneroko bizitzaren problema gehigarriak eta biderkatzaileak ebazten ditu.</i>
<b>Errendimendu maila:</b>	<i>1.2.1.2. Erlazio gehigarriei eta konparazio biderkatzaileko erlazioei (bikoitza, hirukoitza, erdia) dagozkien eragiketa bateko edo bi eragiketako problemak ebazten ditu.</i>
<b>Erantzun zuzena:</b>	<i>5 neska</i>

06

Atletismo taldeko bi kidek, Peiok eta Liernik, parkera korrika egitera joatea erabaki dute. Peioren etxetik Lierniren etxera 1,5 kilometro daude. Han elkartu dira eta elkarrekin joan dira Lierniko etxetik 5 kilometrotara dagoen parkera.



**Zenbat kilometro egin ditu Peiok bere etxetik parkera?**

- A. 1,5 km
- B. 3,5 km
- C. 5 km
- D. 6,5 km

<b>ITEMAREN DESKRIPZIOA</b>	
<b>Dimentsioa:</b>	1. Problemen ebazpena
<b>Kompetentzia espezifikoa:</b>	KONPETENTZIA ESPEZIFIKO 2
<b>Ebaluazio irizpidea:</b>	<b>LH4_2</b> Eguneroko bizitzaren problema errazak eta egoera problematiko irekiak ebaztea, zenbaki arruntekin eta hamartarrekin oinarritzko eragiketak aplikatuta, hainbat estrategia eta prozedura erabilia, kalkulagailua barne.
<b>Lorpen adierazlea:</b>	1.2.1. Eguneroko bizitzaren problema gehigarriak eta biderkatzaileak ebazten ditu.
<b>Errendimendu maila:</b>	1.2.1.1. Eragiketa bateko problemak ebazten ditu, neurriak errepikatzeko egoera gehigarri edo biderkatzaile errazei dagokienez.
<b>Erantzun zuzena:</b>	D / 6,5 km

07

Gaurko entrenamenduan, Mikelek, Amaiak, Sarak eta Jonek lasterketa batean parte hartu dute.

Lasterketaren amaieran, Mikel Amaiaren aurretik eta Sararen atzetik iritsi da. Jon izan da azkena.

**Nola geratu da sailkapena?**

A.

<b>1. Mikel</b>
<b>2. Amaia</b>
<b>3. Sara</b>
<b>4. Jon</b>

B.

<b>1. Mikel</b>
<b>2. Sara</b>
<b>3. Amaia</b>
<b>4. Jon</b>

C.

<b>1. Sara</b>
<b>2. Mikel</b>
<b>3. Amaia</b>
<b>4. Jon</b>

D.

<b>1. Sara</b>
<b>2. Amaia</b>
<b>3. Mikel</b>
<b>4. Jon</b>



<b>ITEMAREN DESKRIPZIOA</b>	
<b>Dimentsioa:</b>	<i>1. Problemen ebazpena</i>
<b>Kompetentzia espezifikoa:</b>	<b>KONPETENTZIA ESPEZIFIKO 2</b>
<b>Ebaluazio irizpidea:</b>	<i>LH4_2 Eguneroko bizitzaren problema errazak eta egoera problematiko irekiak ebaztea, zenbaki arruntekin eta hamartarrekin oinarritzko eragiketak aplikatuta, hainbat estrategia eta prozedura erabilia, kalkulagailua barne.</i>
<b>Lorpen adierazlea:</b>	<i>1.2.5. Arrazoibide logiko-numerikoko eta arrazoibide logiko-operazionalako joko, erronka eta problemak ebazten ditu.</i>
<b>Errendimendu maila:</b>	<i>1.2.5.2. Arrazoibide logiko-numerikoko eta logiko-operazionalako erronka txikiak ebazten ditu.</i>
<b>Erantzun zuzena:</b>	<i>C / Sara – Mikel – Amaia - Jon</i>

08

Klubeko 244 kideak atletismo-lehiaketa bat ikustera joan dira. Bakoitzak autobuserako 5 € eta estadioan sartzeko 3 € eman dizkio klubari. Estadiora heltzean, sarrerak 2 € balio duela konturatu dira.



**Zenbat diru ordaindu du klubak, guztira, irteeragatik?**

€

<b>ITEMAREN DESKRIPZIOA</b>	
<b>Dimentsioa:</b>	<i>1. Problemen ebazpena</i>
<b>Kompetentzia espezifikoa:</b>	KONPETENTZIA ESPEZIFIKO 2
<b>Ebaluazio irizpidea:</b>	<i>LH4_2 Eguneroko bizitzaren problema errazak eta egoera problematiko irekiak ebaztea, zenbaki arruntekin eta hamartarrekin oinarrizko eragiketak aplikatuta, hainbat estrategia eta prozedura erabilita, kalkulagailua barne.</i>
<b>Lorpen adierazlea:</b>	<i>1.2.1. Eguneroko bizitzaren problema gehigarriak eta biderkatzaileak ebazten ditu.</i>
<b>Errendimendu maila:</b>	<i>1.2.1.3. Eguneroko bizitzaren egoera konplexutan harreman gehigarri edo biderkatzaileekin lotutako bi edo gehiagoko eragiketako problemak ebazten ditu.</i>
<b>Erantzun zuzena:</b>	1708 €

09

Klubeko kide batzuk lasterketa batean parte hartzera joan dira. 10:00etan irten dira autoz, eta 55 minutu behar izan dituzte aparkaleku batera iristeko. Ondoren, beste 20 minutu behar izaten dituzte aparkalekutik kiroldegira oinez joateko.

**Zer ordutan iritsi dira kiroldegira?**

- A. 10:55ean
- B. 11:15ean
- C. 11:20an
- D. 11:25ean

<b>ITEMAREN DESKRIPZIOA</b>	
<b>Dimentsioa:</b>	<i>1. Problemen ebazpena</i>
<b>Kompetentzia espezifikoa:</b>	<b>KONPETENTZIA ESPEZIFIKO 2</b>
<b>Ebaluazio irizpidea:</b>	<i>LH4_2 Eguneroko bizitzaren problema errazak eta egoera problematiko irekiak ebaztea, zenbaki arruntekin eta hamartarrekin oinarritzko eragiketak aplikatuta, hainbat estrategia eta prozedura erabilia, kalkulagailua barne.</i>
<b>Lorpen adierazlea:</b>	<i>1.2.2. Eguneroko testuinguruetan neurri-problemak ebazten ditu; aurreko zenbatespenak eta neurketak egiten ditu.</i>
<b>Errendimendu maila:</b>	<i>1.2.2.2. Eguneroko testuingurutan emandako magnitudeen neurri-problemak ebazten ditu.</i>
<b>Erantzun zuzena:</b>	<i>B / 11:15ean</i>

10

Igandeko lasterketan Amaia zeukan dortsalak honako baldintza hauek betetzen zituen:

- Bere hiru zifren batura 15 da.
- Hamarrekoen zifra bikoitia da.
- Batekoen zifra ehunekoen zifraren bikoitza da.

**Zein zenbakia da?**

- A. 366
- B. 396
- C. 438
- D. 447

<b>ITEMAREN DESKRIPZIOA</b>	
<b>Dimentsioa:</b>	<i>1. Poblemen ebazpena</i>
<b>Kompetentzia espezifikoa:</b>	<b>KONPETENTZIA ESPEZIFIKO 2</b>
<b>Ebaluazio irizpidea:</b>	<i>LH4_2 Eguneroko bizitzaren problema errazak eta egoera problematiko irekiak ebaztea, zenbaki arruntekin eta hamartarrekin oinarritzko eragiketak aplikatuta, hainbat estrategia eta prozedura erabilia, kalkulagailua barne.</i>
<b>Lorpen adierazlea:</b>	<i>1.2.5. Arrazoibide logiko-numericoko eta arrazoibide logiko-operazionalako joko, erronka eta problemak ebazten ditu.</i>
<b>Errendimendu maila:</b>	<i>1.2.5.2. Arrazoibide logiko-numericoko eta logiko-operazionalako erronka txikiak ebazten ditu.</i>
<b>Erantzun zuzena:</b>	<i>A / 366</i>


11

Honako taula honetan klubeko lau kidek irabazi duten lasterketen kopurua ageri da.


Izena	Argazki kopurua
Saioa	10
Roberto	4
Pablo	2
Paula	4

Zer grafiko dagokio aurreko taulari?


A.




B.




C.



D.





<b>ITEMAREN DESKRIPZIOA</b>	
<b>Dimentsioa:</b>	3. Konexioak
<b>Kompetentzia espezifikoa:</b>	KONPETENTZIA ESPEZIFIKO 5
<b>Ebaluazio irizpidea:</b>	<b>LH4_10</b> Egoera bakoitzerako egokiak diren taulak eta grafikoak (inguruneko gertaera ezagunen datu-multzo bati lotutakoak) interpretatzea eta erlazionatzea.
<b>Lorpen adierazlea:</b>	3.10.1. Aztertutako egoerarekin bat datozen taula eta grafiko sinpleen bidez (barra-diagramak, sektore-diagramak eta piktogramak) aurkeztutako datuak identifikatzen eta interpretatzen ditu; eta taulen eta grafikoen datuak erlazionatzen ditu.
<b>Errendimendu maila:</b>	3.10.1.2. Sarrera bikoitzeko taula edo grafiko erraz batean (barra-diagramak) agertzen diren datuak interpretatzen eta deskribatzen ditu, eta elkarren artean lotzen ditu.
<b>Erantzun zuzena:</b>	B / 

12

Datorren larunbaterako honako ekitaldi hauek daude antolatuta klubean:

<b>09:00 - 11:00</b>	<b>Altuera-jauzia</b>
<b>10:15 - 12:30</b>	<b>Luzera-jauzia</b>
<b>10:45 - 11:15</b>	<b>Abiadura-probak</b>
<b>11:30 - 13:30</b>	<b>Pertika-jauzia</b>
<b>12:30 - 12:45</b>	<b>Oztopo-lasterketa</b>

**Adierazi honako baieztapen hauek egiazkoak (E) edo faltsuak (F) diren.**

	<b>E</b>	<b>F</b>
Ekitaldi laburrena oztopo-lasterketa da.		
Altuera-jauziak eta pertika-jauziak iraupen bera dute.		
Luzera-jauzia amaituko da oztopo-lasterketa hasi baino lehenago.		
Ekitaldi luzeena luzera-jauzia da.		

<b>ITEMAREN DESKRIPZIOA</b>	
<b>Dimentsioa:</b>	<i>1. Problemen ebazpena</i>
<b>Kompetentzia espezifikoa:</b>	KONPETENTZIA ESPEZIFIKO 2
<b>Ebaluazio irizpidea:</b>	<i>LH4_2 Eguneroko bizitzaren problema errazak eta egoera problematiko irekiak ebaztea, zenbaki arruntekin eta hamartarrekin oinarritzko eragiketak aplikatuta, hainbat estrategia eta prozedura erabilita, kalkulagailua barne.</i>
<b>Lorpen adierazlea:</b>	<i>1.2.2. Eguneroko testuinguruetan neurri-problemak ebazten ditu; aurreko zenbatespenak eta neurketak egiten ditu.</i>
<b>Errendimendu maila:</b>	<i>1.2.2.3. Eguneroko testuingurutan zenbait magnitudetako neurri-problema konplexuak ebazten ditu.</i>
<b>Erantzun zuzena:</b>	<i>E / E / F / E</i>

13

Urtero, atletismo klubak lasterketa bat antolatzen du herriko jaietan. Azken urtean, ume, gazte eta heldu askok hartu zuten parte, honako taula honetan adierazten den bezala:

<b>Kategoria</b>	<b>Adina</b>	<b>Parte-hartzaileen kopurua</b>
Umeak	5 - 7	14
	8 - 11	16
Gazteak	12 -14	23
	15 - 18	27
Helduak	19 - 25	30
	26 - 65	30
<b>Guztira</b>		<b>140</b>



**Zenbat parte-hartzaile egon ziren 5 eta 18 urte bitartekoak?**

- A. 30 parte-hartzaile
- B. 50 parte-hartzaile
- C. 80 parte- hartzaile
- D. 140 parte-hartzaile

<b>ITEMAREN DESKRIPZIOA</b>	
<b>Dimentsioa:</b>	3. Konexioak
<b>Konpetentzia espezifikoa:</b>	KONPETENTZIA ESPEZIFIKO 5
<b>Ebaluazio irizpidea:</b>	<b>LH4_10</b> Egoera bakoitzerako egokiak diren taulak eta grafikoak (inguruneko gertaera ezagunen datu-multzo bati lotutakoak) interpretatzea eta erlazionatzea.
<b>Lorpen adierazlea:</b>	3.10.1. Aztertutako egoerarekin bat datozen taula eta grafiko sinpleen bidez (barra-diagramak, sektore-diagramak eta piktogramak) aurkeztutako datuak identifikatzen eta interpretatzen ditu; eta taulen eta grafikoen datuak erlazionatzen ditu.
<b>Errendimendu maila:</b>	3.10.1.1. Sarrera bikoitzeko taula edo grafiko erraz batean agertzen diren datuak identifikatzen eta interpretatzen ditu (piktogramak).
<b>Erantzun zuzena:</b>	C / 80 parte-hartzaile

14

Ane bere etxetik klubera joan da markatutako ibilbidetik.




Zer distantzia egin du gutxi gorabehera?

- A. 250 m
- B. 500 m
- C. 1000 m
- D. 2000 m

<b>ITEMAREN DESKRIPZIOA</b>	
<b>Dimentsioa:</b>	4. Komunikazioa eta irudikapena
<b>Kompetentzia espezifikoa:</b>	KONPETENTZIA ESPEZIFIKO 6
<b>Ebaluazio irizpidea:</b>	<i>LH4_13</i> Espazio-irudikapenak interpretatzea eta egitea (mapak, planoak, ibilbideen krokisak eta maketak), oinarritzko nozio geometrikoak erabilia (posizioa, mugimendua eta simetria), hurbileko espazio fisikoari buruzko informazioak komunikatzeko.
<b>Lorpen adierazlea:</b>	4.13.4. Kale-izendegi eta plano errazetako distantzia errealak zenbatesten eta kalkulatzeko, metro-erreferentziak erabilia.
<b>Errendimendu maila:</b>	4.13.4.1. Planotan distantziak zenbatesten eta kalkulatzeko, eskala sinboliko oso errazak erabilia.
<b>Erantzun zuzena:</b>	B / 500 m

15

Atleta talde batek sei buelta ematen ditu egunero parkearen inguruan korrika. Ibilbidea gorriz markatuta dago planoan.



Honako distantzia hauetatik zein hurbiltzen da gehien egunero egiten duten distantziara?

- A. 2 km
- B. 3 km
- C. 5 km
- D. 8 km



<b>ITEMAREN DESKRIPZIOA</b>	
<b>Dimentsioa:</b>	4. Komunikazioa eta irudikapena
<b>Kompetentzia espezifikoa:</b>	KONPETENTZIA ESPEZIFIKO 6
<b>Ebaluazio irizpidea:</b>	<b>LH4_13</b> Espazio-irudikapenak interpretatzea eta egitea (mapak, planoak, ibilbideen krokisak eta maketak), oinarritzko nozio geometrikoak erabilia (posizioa, mugimendua eta simetria), hurbileko espazio fisikoari buruzko informazioak komunikatzeko.
<b>Lorpen adierazlea:</b>	4.13.4. Kale-izendegi eta plano errazetako distantzia errealak zenbatesten eta kalkulatzten ditu, metro-erreferentziak erabilia.
<b>Errendimendu maila:</b>	4.13.4.2. Kale-izendegitan eta planotan benetako distantziak zenbatesten eta kalkulatzten ditu, eskala sinboliko errazak erabilia.
<b>Erantzun zuzena:</b>	C / 5 km

16

Honako taula honetan atletismo klubetik herriko beste leku batzuetara dauden distantziak agertzen dira.

	Udaletxea	Ikastetxea	Museoa	Kluba	Zinema
Udaletxea		150	275	155	450
Ikastetxea	150		152	100	325
Museoa	275	152		125	175
Kluba	155	100	125		300
Zinema	450	325	175	300	

Zein da klubetik urrunen dagoen lekua?

- A. Udaletxea
- B. Ikastetxea
- C. Museoa
- D. Zinema

<b>ITEMAREN DESKRIPZIOA</b>	
<b>Dimentsioa:</b>	3. Konexioak
<b>Kompetentzia espezifikoa:</b>	KONPETENTZIA ESPEZIFIKO 5
<b>Ebaluazio irizpidea:</b>	<b>LH4_10</b> Egoera bakoitzerako egokiak diren taulak eta grafikoak (inguruneko gertaera ezagunen datu-multzo bati lotutakoak) interpretatzea eta erlazionatzea.
<b>Lorpen adierazlea:</b>	3.10.1. Aztertutako egoerarekin bat datozen taula eta grafiko sinpleen bidez (barra-diagramak, sektore-diagramak eta piktogramak) aurkeztutako datuak identifikatzen eta interpretatzen ditu; eta taulen eta grafikoen datuak erlazionatzen ditu.
<b>Errendimendu maila:</b>	3.10.1.1. Sarrera bikoitzeko taula edo grafiko erraz batean agertzen diren datuak identifikatzen eta interpretatzen ditu (piktogramak).
<b>Erantzun zuzena:</b>	D / Zinema

**17**

Lasterketetarako zirkuito batean, zenbait tokitan, irteeratik dagoen distantzia seinalatu dute.

Seinalatutako distantziek honako serie honi jarraitzen diote:

10 m	30 m	90 m	270 m	m
------	------	------	-------	---

**Zein izango da seinalatutako hurrengo distantzia?**

	m
--	---

<b>ITEMAREN DESKRIPZIOA</b>	
<b>Dimentsioa:</b>	2. Arrazoibidea eta proba
<b>Kompetentzia espezifikoa:</b>	KONPETENTZIA ESPEZIFIKO 4
<b>Ebaluazio irizpidea:</b>	<b>LH4_6</b> Zenbakizko sekuentzian, eragiketa-sekuentzian, irudi-bilduman edo datu-multzoan gertatzen diren erregulartasunak irizpidez ikertzea eta bilatzea, emaitzak iragarritz eta patroien eta sailkapenen baliozko irizpideak zehaztuz.
<b>Lorpen adierazlea:</b>	2.6.2. Serie geometrikoak eta zenbakizko serie errazak osatzen eta egiten ditu.
<b>Errendimendu maila:</b>	2.6.2.2. Zenbakizko serieak (multiploak) eta serie geometrikoak osatzen eta sortzen ditu.
<b>Erantzun zuzena:</b>	810 m